

Espainiako komunitate beltza, afrikarra eta afro-ondorengoa-ren (CNAAE) Adierazpena

Igande honetan, ekainaren 7an, Madrilan, Bilbon, Bartzelonan, Murtzian, Malagan, Zaragozan, Balentzian, Kordoban eta Rotan (Kadiz) ordutegi desberdinetan bilduko gara, George Floyden hilketari arrazista salatzen asmoz. Maiatzaren 25ean, Derek Chauvinek, Minneapoliseko (Minnesota) polizia supremazista zuriak gure anaia hil baitzuen.

Guk, Espainiako komunitate beltzak, afrikarrak eta afro-ondorengoak, ijito herriko pertsonak, Abya Yalakoek, Magrebiek, arabiarrek, musulmanek eta asiarrak, gainerako aliatu arrazistekin batera, badakigu hilketari hau ez dela kasu isolatu bat, baizik eta Estatu Batuetako beltzek jazaten duten indarkeria historiko eta estrukturalari erantzuten diola.

Hala ere, beltzen aurkako arrazismo instituzional eta soziala ez da soilik AEB-etan dagoen arazoa. Munduko leku askotan, era ezberdinean, arrazismo honek etengabe bizitza beltzen aurka egiten duela ikusi dezakegu. Batzuetan modu zuzenean, erahilketa fisikoaren bitartez, eta beste batzuetan, zeharkako moduen bitartez, hau da, egiturazko pobrezia, lan esplotazioa eta jazaten ditugun aukera-falten baldintzak sorraraziz.

Ikusi ahal izan dugunez, COVID-19ak, beste lurralde batzuetan ikusi dugun bezala, gorputz beltzen aurkako indarkeria justifikatzeko balio izan du eta gainera, gure komunitateak gogor kolpatu ditu. Gure gorputz beltzak dira lanpostu prekarioenetan aurkitzen direnak eta hauei ukatzen zaizkie osasun zerbitzuak, eta auzo osasungaitzetan dauden etxebizitza txiroeneetan giltzaperatzen zaie.

Munduko komunitate beltzen egoera hau, pertsona beltzen esklabutza, bahiketa eta merkataritza-aldiaren, kolonialismoaren eta neokolonialismoaren herentzia zuzena da. Gure salaketa, sistema oso bati zuzenduta dago; gure gorputz beltzen marjinazioaz, esplotazioaz, kriminalizazioaz eta hilketaz eraikitzen den sistemari.

Hau guztiagatik, George Floyden hilketari arrazista ezin dugu lotu gabe utzi gure ahizpa eta anaien milaka heriotzekin Mediterraneo itsasoan, Tarajalen (Ceuta) hildako 15 pertsona beltzekin, Lucrecia Perezen, Samba Martinen eta Mame Mbayeren heriotzekin, Bilbon, Juan Carlos Aguilar shaolin fraide faltsuak eraildako emakumeekin: maiatzaren 25ean Yenny Sofia Rebollo kolonbiarrarekin eta 2013ko ekainaren 2an Maureen Ada Outya nigeriarrarekin. Elhadji Ngiaye, 2016ko urriaren 25ean poliziak Iruñean hil zutenarekin, ertzaintzaren gehiegikeriak pandemian desgaitasun mentala zuen gazte arrazalizatu bati eta haren ama migratzailearekin. Emakume hori, gerora, krudelkeriaz erasotua izan zen zazpi polizien artean. Gertakari hau ez zuen Segurtasuneko sailburua, Estefanía Beltrán de Herediak, ezta Segurtasuneko zinegotzia Amaia Arregik argitu, nahiz eta, hauek jakin Euskadi arrazakeriari eta xenofobiari lotutako delituen buru

delarik (Espainian atzerritarren aurkako lau delitutik bat Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratzen da).

Askok dakigunez, nahiz eta legez kanpokoa izan, diskriminazio hau ohikoa da gure lan-merkatuan: pertsona beltzak kontratatzeari uko egiten diete, soldata-diskriminazioa, kontratazio-epeak, baldintzak eta kontratatzekeo pribilegioak edo segregazioa, hau da, arrazarekin, kolorearekin, erlijioarekin, generoarekin, sexu-orientazioarekin edo nazionalitatearekin lotutako arrazoiengatik lan-aukerak bereiztea edo kentzea.

Hamarkadak daramatzagu herrialde honetan komunitate beltzak, afrikarrak eta afrikar ondorengoak bizi duten arrazakeria instituzionala eta soziala salatzen. 2016an, Afrikako Gizarte Zibilak eta Afrovenentek Espainiako arrazakeriari buruz egindako txostenean egin genuen. 2016ko apirilaren 26an, New Yorken, txosten hori Pastor Elías Murillo jaunari igorri zitzaion, Arraza-bereizkeria Ezabatzeko Nazio Batuen Batzordeak azter zezan. Era berean, guzti hau, NBEko afrikar ondorengoentzako Adituen Lantaldeak 2018an egin zuen txostenean jaso zen. Txosten hau pertsona baltzek, afrikarrek eta afrikar ondorengoek Espainian zuten egoeraz aritu zen, eta honako hau adierazi zuen:

- Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek eta segurtasun-enpresa pribatuek populazio beltza 42 aldiz gehiago seinalatzeko joera dutela, bai portuetan, bai garraio publikoetan, soilik beraien azalaren koloreagatik.

- Arraza-bereizkeria gizarteko esparru guztietan presente dagoela: ikastetxeetan, lan-merkatuan, etxebizitzan, osasun zerbitzuetan eta beste gizarte-zerbitzu batzuetan.

- Migratzaile beltzak Atzerritarren Barneratze Zentroetan espetxeratu dituztela, nahiz eta hori oinarrizko eskubideen urraketa izan.

- Afrikar langile migranteek landetan bizitzen dituzten baldintza latzengatik kezka azpimarratzen da ere, bereziki Almeriako eremukoak.

- Halaber, jatorri etnikoaren edo arrazaren arabera banakatutako daturik ez izateak komunitate beltza, afrikarra eta afrikar ondorengoa ikusezin bihurtzera kondenatzen zuela adierazi zuten, arrazismoaren, arraza-bereizkeriaren eta gizarte-bazterketaren aurkako irtenbide eraginkorrak aurkitzea eragotziz.

- Era berean, emakume beltzen, disidente sexualen, afrikarren eta afrikar ondorengoen egoeraz arduratzen da, diskriminazio hirukoitzari aurre egin behar baitzioten: matxismoa, arrazismoa eta klasismoa. Honekin batera, Espainiako pertsona baltzek desparekotasun eta diskriminazio-mota anitzei aurre egin behar dietela adierazi zuten, arraza, kolorea, generoa, sexu-orientazioa eta erlijio-sinesmenak direla-eta.

- Gainera, Atzerritarren Legea berrikusi behar da, migratzaileen eta asilo-eskatzaileen eskubideak gehiago errespetatzeko helburuarekin.

- Modu berean, Espainiako Gobernuak testuliburuak eta beste hezkuntza-material batzuk maiz berrikusi behar ditu, iraganeko tragediei eta ankerkeriei buruzko gertakari historikoak zehaztasunez islatzen dituztela ziurtatzeko; bereziki, esklabotza, afrikar esklaboen salerosketa eta kolonialismoa. Gobernuak ikusgarritasun handiagoa eman behar dio afrikar ondorengo historiarari eta kulturari, museoen, monumentuen, ikusizko arteen eta beste bitarteko batzuen bidez.

- Amaitzeko, Espainiako Gobernuak justizia leheneratzaileari buruzko diskurtso nazional batean oinarritzea gomendatu zen, bidegabekeria historikoei aurre egiteko. Gizarte zibilarekin lankidetzan, Espainiako agintariek bete-betean aplikatu behar dute Nazioarteko Hamarkadako jarduera-programa, afrikar ondorengo aitorpenaren, justiziaren eta garapenaren hiru gaien inguruan.

Arrazazko diskriminazioa ematen den egoeren salaketa, Espainiako komunitate beltzak, afrikarrak eta afrikar ondorengoek landutako 2020ko apirilaren 22ko aldizkako azterketa unibertsalaren (EPU) hirugarren saioari buruzko adierazpenean zabaltzen da.

Egiaztatzen den moduan, Espainiako komunitate beltzak, afrikarrak eta afrikako ondorengoek urteak daramatzate eragin politikoa egiten, gure eskubideak bermatu daitezten. Baina, gure eskaerei muzin egiten dien klase politiko ezkertiar zein eskuindar batekin egin dugu topo. Gure eskaerak desitxuratzen dituzte edo egiturazko aldaketarik eragiten ez dituzten keinu politikoetan galtzen dira.

Gaur, berriz ere, George Floyden familiari eta kaleak hartzen ari den Ameriketako Estatu Batuetako komunitate beltzari gure babesa adierazteko elkartu gara: "Justiziarik gabe, ez da bakerik egongo".

Gu, afrikar komunitate beltza, Espainian afrikar jatorria duena, kalera aterako gara gauza bat argi uzteko: Frantziako txaleko beltzek, gure anai-arrebek, esan zuten bezala, "Beldurrak bandoz aldatu behar du".

Bizitza beltzek garrantzia dute, ez gara geldituko gure gizarteetako egiturazko arrazakeria desagerrarazi arte. Egia, justizia eta ordaina. Botere beltza.